

Ezta sarigarri susmoan irautea.
Epaille itsua ez izan erriari on.
Eta adiskidea etsaitzat artzea
askozaz be astunagoa dozu
adiskideakin etsaia nastutea baiño.

Igotz

BERTOLT BRECHT'en KANTAK ETA
POEMAK

Otsalar'ek euskeratuak (I)

GUDARIEN KANTAK

Tabernaria, pattarra eta azkartu adi!
Gudari batentzat ez zegok zertan denborarik galdu.
Bere enperadoreagaitik burruka egin behar dik.

Nere besoetara, andere, eta azkartu adi!
Gudari batentzat ez zegon zertan denborarik galdu.
Moravia'ra arte zaldiz joan behar din.

Atera zak triunfoa, adiskide, eta azkartu adi!
Gudari batentzat ez zegok zertan denborarik galdu.
Lehenbiziko deira joan beharra dik.

Apaiza, eman zak hire «amen»a, eta azkartu adi!
Gudari batentzat ez zegok zertan denborarik galdu.
Bere enperadoreagatik hil behar dik.

(Mutter Courage und ihre Kinder, 1939)

(1) Lehenago «OLERTI»n argitaratu ziranen jarraipena.
Ikusi OLERTI, 1966 (III-IV), Garilla-Lotazilla, 26/27 ho-
rrialdeak.

ABOTS BAT

Lorategi guzian,
lora bat gustatu zitzaigun.
Zein eder loratua!
Epailean jarria zuten,
eta ez zan alperrikakoa izan, ez.
Zoriontsuak lorategi bat dutenak!
Eta elur-haizeak ari diranean
eta piñu artean bere txistu otsa entzun,
zer gertatuko litzaiguke?
Gure teilatua egin dugu,
odol-giz eta lastoz estalia gainera.
Zoriontsuak teilatua eduki ahal dutenak
elur-haizeak txistuka entzuten diranean.

(Mutter Courage und ihre Kinder, 1939)

GUDUA MAITATZEN ZUAN MAIXUA

Huber'i, maixua bera,
gudua biziki gustatzen zitzaion.
Federiko Haundiaz mintzatzean,
begiak dizdiz jartzen zaizkion,
baina Wilhelm Pieck'ek ez zion barne-garrik pizten.

Orduan etorri zan Schmitten, garbitzailea,
zikinkeria ezin aguantatu zuana.
Hartu zuan Huber maixua,
eta lixiban sartu zuan
zikinkeriak kentzeko.

TXINA'KO TE SUSTRAI BAT LEOI TANKERAZ

Zure erpen beldur dira gaiztoak
eta onak pozten dira zure graziarekin.
Hori bedori
entzun nahi nuke
nere bertsoeri buruz.

(1951)

MAO TSE-TUNG'EN OLERKIAK

«Kontxo, kontxo, gizon au be olerkari?», esango daust norbaitek. Bai, Mao be poeta. Kondairak ezagutu dauan diktadurarik gogorrena Txina'n sartu ta ipiñitako gizona, olerkari dozu, ta bikain samarra izan be. Anai arteko burruka garaian, Txina astindu eben unerik latzenetan, goi-argiak ikutua nunbait, poema politak idatzi zitun. Gerora, barriz, 1949'garrenean garaitza lortu ondoren, gitxi idatzi dau, bertsoetan beintzat. Ona, bere liburuetan agertzen diranetatik lau, euskeraz.

1) Mendi-besangak

Mendi-besangak!
Neure zaldia zatatzen dot,
bizkorrago!,
zela itxi bagarik.
Abiatzen naz ta burua jasoten:
zerua iru oiñera dago, irura, neure gaiñ.